

**IKUS-ENTZUNEZKOAK.** FLNC erakunde armatuaren historia ulertzeko tresnak ematen ditu, tabu eta iritzirik gabe

# FLNC, ilusioak eta tragediak

Korsikari buruzko ikuspegi ezohikoa eskaini dute 'Generation FLNC' dokumentalean

Eneko Bidegain | MIARRITZE

Korsika eta FLNCri buruz Frantziako telebista kateetan ikusi ohi diren dokumentaletatik zerbait ezberdina aurkeztu dute Gilles Perez eta Samuel Lajusek Miarritzeko FIPA jaialdian. *Generation FLNC* (FLNC belaunaldia) dokumental luzeak Korsikako erakunde armatuaren historia ulertarazten laguntzen du. Ez da Korsikako abertzaletasunaren eta borroka armatuaren gutxiesteko eta gaitzesteko dokumental bat.

«Komentarioak egiteari uko egin diogu. Ez dugu gure iritzia buruzko ezaugarririk ematen», zehaztu zuen Perezek. Eta egia da. Filmaren egileen hitzik ez da agertzen, testuinguru historikoa zehazteko ez bada. Ez dago ironiarik FLNCren aurka, ez eta ere korsikarrei buruzko

topikorik. Ez dute sensazionalismorik bilatu, orduak eta orduak elkarrizketatu dituzten FLNCko sortzaileen esaldiak hautatzerakoan. Kazetariak korsikar elkarrizketatuen «konfiantza» lortzen egon ziren aste luzeetan. «Frogatu behar genien ez ginela kontinenteko bertze kazetariak bezala ari. Haien historia da, eta haiek kontatzen utzi nahi izan ditugu. Gu lotura bat gara bien artean».

## «Erromantizismo urteak»

Leo Battesti, Alain Orsoni, Marie-Helene Mattei, Edmond Simeoni eta FLNCren sorreran parte hartu zuten batzuk beren erakundeaz eta Korsikako mugimendu abertzaleaz mintzo dira. Taburik gabe. Mugimendu independentistaren argiak eta itzalak aipatzen dira. 68ko maiatzaren ondoko giroa, kontinen-



**BESTE IKUSPEGI BAT.** Gilles Perez eta Samuel Lajuse Korsikari eta FLNCri buruz ematen den ohiko iruditik urrundu dira, korsikarrez Frantziako telebista kateek ematen dutenetik.

tera ikastera joan eta berantago berriz itzuli ziren ikasleen ekarpena, kontzientzia nazionalaren sorrera, ekintza bortitzen agerpena. «Erromantizismo urteak» deitu dituzte dokumentalaren egileek. Herri mugimenduen loratze gisa agertzen dira, artxiboetako irudi ugariaren eta Korsikako kantu engaitu zirrargarrienen bitartez. Borrokaren zergatiak azaltzen dira, laburpen desitxuratuailerik gabe. FLNCren ekintza batzuk balentria gisa ageri dira.

Frantziaren ukapena eta gerra zikina ez dira ahantziak.

FLNCren itzalak ere ez: ezker muturreko ideologoen eta eskuin muturretik zetozten militanten arteko desadostasunak, gaizki hartuak izan ziren zenbait kanpaina eta, batez ere, 90eko hamarkadako zatiketa odoltsua. Zatiketaaren arrazoi politikoak, ekonomikoak eta pertsonalak doi bat aipatzeaz aparte, Charles Pasqua garai hartako Barne ministro frantziarraren «garai-pen» gisa ere aurkeztua da, dokumentalean, zatiketa hura.

Erignac prefetaren hilketaren eta ondorengo errepresoren aipamena ere ez da Parisen diskurtso ofizialera mugatzen. Gilles Perezek berak dio —hala azaltzen dute elkarrizketatuek ere— ekintza hura burutu zutenen helburua mugimendu abertzale zatituaren berradiskidetzea zela. Hilketeta eta komando-

aren erorketaren artean hama-bost hilabete iragan ziren. Baina Bonnet prefetak askoz lehenagotik zekien nor ziren komandoko kideak. Denbora luze hura, ehunka pertsonaren etxeak miatzeko eta Korsikako militantzia zabalari buruzko ahal bezainbat informazio lortzeko baliatu zuten, hilketara argitzeko aitzakiarekin. Hori da dokumentalean ulertzen dena.

Egun, elkarrizketatuek ez dute «damurik», Perezen ustez. Batzuek ez. Batzuek bai. Batzuek nahi lukete beren haurrei, «aitak bere bizirik zergatik hainbeste eman du?» galderari erantzuten jakin. Batzuen ustez, borroka armaturik gabe, unibertsitatek ez zen izaneren, itsas bazterra betoian estaliko zuen. Eta etsiturik ageri direnek diote, herriak beti bizirik irauteko gogo mantenduko duela. Hori da dokumentalaren azken hitza.

## GAEL MOCAER 'MADAGASCAR SEPT MOIS DE CHAOS'-EN EGILEA

### «Hitza ez dutenei eman egin nahi diet»

E. B. | MIARRITZE

Gael Mocaer Baionan sortu zen duela 29 urte. Sortu bakarririk. Ikus-entzunezko ikasketen egiteko itzuli zen urte batzuen buruan. Eta berriz joan. Ikaragarri gustatzen zaion herria: Madagaskar. Eta jadanik bi erreportaia ekoiztu ditu herri honi buruz. FIPAn aurkeztu duena, *Madagascar: 7 mois de chaos* (Madagaskar, 7 hilabeteko kaosa), duela urtebete izan ziren istiluetaz mintzo da. Hedabideek pixka bat aipatu zituzten, baina gutxi. «Nire buruari eman diodan eginbidea, hitza ez duten jendei, ematea da».

Washingtongo frankotirantzaleaz Afrikako sarraskietaz baino askoz gehiago idatzi eta filmatu delako asaldaturik ageri da gaztea. Horregatik jotzen du Madagaskar bezalako herrietara. «Hango historia, oso gutxi existitzen da



ikus-entzunezkoan. Garrantzitsua da memoria biltzea, ez guretzat, baina haientzat». Eta filma, lehen lehenik, Madagaskarren erakutsiko du.

Hautu hori, «hastapenean zaila da», dokumentalak saldu nahi badira. Bere erreportaiak proposamenak hirurehun

tokitara bidali zituen. Hiruzpalau erantzun jaso zituen. Menturazko hitzorduak proposatu... Alta, «banatzaileekiko askatasun» horrekin jarraitu nahi du. Funtsean, konfiantzazko bi produktore aurkitu ditu. «Egiten dudana hartzen dute. Ez dugu askatasun handirik, beraz dugun puska hura hartzen dugu».

Askatasuna izan daiteke, bere «ikusmoldea ematea». «Krisi edo gerra baten aitzinean, ezin gaitzke iritzirik gabe egon». Mocaerrek ez du «irakaspenik eman nahi». Halere, Afrikako etorkizunaz biziki kezkatutako dago. «Atzerapezko lehergailu bat bezalako da. Amerikako Estatu Batuek Ekialde Hurbilarekin duten arazo bera izanzen du Frantziak bere kolonia ohiekin, hemendik hamar bat urtera. Eta lehertuko delarik, galderak eginen dituzte eta ez dute ulertuko».

**KMI 10**  
kulturuneak

**SOS**  
ARRAZAKERIA

**INMIGRAZIOA**  
Gure beldurrak eta arrangurak

Urtarrilak 24, 19:30 - Aretu Nagusia

**La criminalización del otro:  
el inmigrante como peligro**

Hizlaria: **Daniel Wagman**

KMK Zuzenean  
Hitzaldiak RealVidoren bidez emango dira

**MUGAK**  
Arrazakeria eta xenofobian buruzko ikasketak eta Dokumentazio Zentroa

Uzturkako Foru Aldundia  
Euzko Legebiltzariaren Foru Batzaria